

## **2003ko ABENDUAREN 23ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta hiruko abenduaren hogeita hiruan, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- A-4 XEHETASUNEZKO AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA**

Udal honek, bi mila eta hiruko apirilaren hamalauan eginiko Bilkura Nagusian, Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-4 Areako, U.A.U. 4-2 C (BR) Partzelari dagokion Xehetasunezko Estudioari lehen onarpema eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2003ko Maiatzaren 13ko, 88. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2003ko Maiatzaren 16ko Gara egunkarian, hamabosteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inola alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluaren arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik, Udal Batzarrari, proposatu zaio:

### **ERABAKIA**

1.- Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-4 Areako, U.A.U. 4-2 C (BR) Partzelari dagokion Xehetasunezko Estudioa ri, behin-betiko onarpema ematea.

2.- Erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-4 Areako, U.A.U. 4-2 C (BR) Partzelari dagokion Xehetasunezko Estudioaren Onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren "quorum"arekin, aho batez onartua izan da.

### **3.- U-1 XEHETASUNEZKO AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA**

Udal honetako Alkatetzak, bi mila eta hiruko abuztuaren seiko Alkatetza Dekretuaren bidez, "Lizartzako Laguntzazko Arauetako U-1 Industri Eremuaren Xehetasunezko Azterlanari" lehen onarpema eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2003ko Abuztuaren 20ko, 156 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2003ko Abuztuaren 2..ko Berria egunkarian, hamabosteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inolako alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluaren arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik, Udal Batzarrari, proposatu zaio:

#### **ERABAKIA**

1.- "Lizartzako Laguntzazko Arauetako U-1 Industri Eremuaren Xehetasunezko Azterlanari", behin-betiko onarpema ematea.

2.- Erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

"Lizartzako Laguntzazko Arauetako U-1 Industri Eremuaren Xehetasunezko Azterlanaren Onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta

eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren “quorum”arekin, aho batez onartua izan da.

#### **4.- U-1 SEKTOREKO HIRIGINTZAKO HITZARMENAREN ONARPENA**

Alkate-Lehendakariak, U-1 Sektoreko Hirigintzako Hitzarmena aurkezten du, bere onarpenerako, eta literalki honela dio:

**LIZARTZAKO UDALAREN ETA LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO U.1 EXEKUZIO UNITATEKO JABEEN ARTEKO HIRIGINTZA HITZARMENA, AIPATUTAKO UNITATEAREN KUDEAKETA ARAUTZEKO.**

#### **BILDUTA:**

Alde batetik, Joseba **EGIBAR ARTOLA** jauna, LIZARTZAKo Udaleko Alkate-Lehendakari gisa.

Bestetik, José Ignacio **GALARRAGA URRETAVIZCAYA** jauna, adinez nagusia, —jakinarazpenetarako helbidea: Tolosa (Gipuzkoa), Iruñako Etorbidea 12. NAN zenbakia: 15.966.525-V— URBA U.T.E aldi baterako enpresa elkartearen —egoitza Tolosan, (Gipuzkoa) Iruñako Etorbidea 12an du— izenean eta hura ordezkatzuz, haren gerente gisa. Aipatutako aldi baterako enpresa elkarte, URBA, U.T.E, 2000ko irailaren 1ean eratu zen Emilio Navarro Moreno Tolosako notarioaren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez —protokoloko 1294 zenbakia duena—; eta identifikazio fiskaleko G/20710109 zenbakia du.

Eta bestetik, ..... jauna, adinez nagusia —jakinarazpenetarako helbidea: ..... NAN zenbakia:.....— MANIPULADOS DEL ARAXES S.A.ren izenean eta hura ordezkatzuz, .....gisa

Egintzaren fede ematen duen Udalbatzako idazkari Ana **ZABALA GARMENDIA** andrearen aurrean, hau

## **ADIERAZTEN DUTE:**

**Lehena:** U.1 exekuzio unitatea garatzeko, eta udal planeamenduko arau subsidiarioek araututakoarekin bat etorriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak "Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako U.1 sektoreko plan partziala" onartu zuen behin betiko 1995eko martxoaren 28an — 1996ko uztailaren 30eko 146 zenbakiko GAO n argitaratua.

**Bigarrena:** Aipatutako plan partzialak, 2002ko martxoaren 25ean Lizartzako Udalak behin betiko onartutako jarduera sistema aldaketaren ondoren, konpentsazioko jarduera sistema aurreikusten du.

**Hirugarrena:** Jarduketa unitatea garatzen duen plan partzian araututakoarekin bat etorriz, 2003ko abenduaren 23an U-1eko xehetasun azterketa egitea onartu da behin betiko.

**Laugarrena:** URBA U.T.E. aldi baterako enpresa elkarte da U.1 exekuzio unitateko lur guztien jabea, eta gaur egun kudeaketa eta garapen fasean egonda, nahitaezkoa da horiek berdinbanatzea eta urbanizatzea.

**Bosgarrena:** Bildutako alderdien artean egindako elkarrizketen ondoren, interes publikoekin eta pribatuekin bat datorren akordio batera iritsi dira, eta hura agiri honen bidez formalizatzen dute erabaki hauetan oinarrituz

## **ERABAKIAK**

**LEHENA:** Alderdiak elkarri onartzen diote hitzarmen hau izenpetzeko eta egiteko legezko gaitasuna, eta hura fede onez betetzeko konpromisoa hartzen dute.

**BIGARRENA:** Hitzarmen honen xedea Lizartzako planeamenduko arau subsidiarioetako U-1 exekuzio unitatearen kudeaketako arauak

finkatzea da, eta sortutako obligazio ekonomikoak ordaintzeko baldintzak zehaztea.

**HIRUGARRENA:** LIZARTZAKO Udalak, alkatetzaren bidez, aurkezten diren urbanizazio proiektuak eta xehetasun azterketak indarrean dauden legen arabera eta ahalik eta lasterren tramitatzeko konpromisoa hartzen du; baita, bere kasuan, obrak egiteko lizentzia ere, jabetzak hala eskatzen duenean.

**LAUGARRENA:** Hirigintza kudeaketako Erregelamenduko 115. artikuluekin bat etorriz, jabeek, ados jarririk, eskritura publikoan formalizatutako birpartzelatze proposamena aurkeztu beharko dute, eta bertan, jabeei dagozkien onurak eta zamak esleituko dira, eta jabetza eta erabilera publikorako lurren lagapena formalizatu beharko da, plan partzialak araututakoari jarraituz.

Lizartzako Udalari dagokion %10eko aprobetxamendua, (133.000,00) euro, horrela banatuko da:

- 200 m<sup>2</sup>ko nabea eraiki eta lagako da, honekin batera doazen planoek zehaztutakoari jarraituz, udalari laga beharreko lur eremuan, eta 10 metroko zabalera, 20 metroko luzera eta zertxetaraino 6 metroko altuera izango du. Sustatzaileek egin behar dituzten gainerako nabeen eraikuntza ezaugarri berak izango ditu. Nabearen balioespena 58.899,19 eurokoa izango da, eta hitzarmen honekin batera doan eranskinean jasotzen diren eraikuntza ezaugarriak izango ditu.
- Aprobetxamenduari dagokion beste zatia diru bihurtuko da; HIRUROGEITA HAMALAU MILA EHUN euro eta LAUROGEITA BAT zentimo, (74.100,81) EURO, hain zuzen ere.

Hitzarmen honetan finkatutako hirigintza aprobetxamenduak

ez du jasotzen tarteko solairuetan eraikigarria den azaleraren likidazioa. Likidazio hori onartutako obra proiektuen arabera izango da, eta guztiek espediente bakoitzean eraikitzen den azalera adierazi beharko dute. Kasu horietan, irabazizko aprobetxamenduaren %10eko balioa horiek eraikitzean udaleko teknikariek indarrean dauden legeen arabera ezarritako balioespenaren arabera finkatuko da.

**BOSGARRENA:** Zehaztutako zenbatekoak ondoren adierazten den moduan likidatzea adostu dute alderdiek:

- Eraikuntzako udal tasa: eraikitze lizentzia eman izana jakinarazi eta ondorengo 20 eguneko gehienezko epean. Tasaren zenbatekoa udal ordenantzetan araututakoaren arabera finkatuko da.
- Hirigintzako aprobetxamenduaren %10aren lagapena: 66.500,00 euro eraikitze lizentzia eman izana jakinarazi eta ondorengo 20 eguneko gehienezko epean. Gainerako 7.600,81 euroak obra guztiak, bai eraikuntzakoak, bai urbanizazio orokorrekoak, behin betiko amaitu eta ondorengo 20 eguneko gehienezko epean.

Urbanizazio eta eraikuntza lanak batera egiten badira, sustatzaileak abal bat eratu beharko du urbanizazio obrak egingo direla bermatzeko. Abala udaletxean aurkeztuko da urbanizazio proiektua onartzen denean.

**SEIGARRENA:** Unitatea urez hornitu ahal izateko, Lizartzako Udalak ur biltegia jartzeko lurra eskuratzeko eta haren mantentze lanak bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du.

Bestalde, URBA U.T.E.k ur biltegia udalak adierazitako lekuan eta hark ezarritako zehaztapenen arabera eraikitze konpromisoa hartzen du,

urarentzat bi irteera jarritz. Obra egin ondoren, sustatzaileak Lizartzako Udalari emango dio ur biltegia.

**ZAZPIGARRENA:** Hitzarmen honetan sartzen diren lur sailen eskualdaketa negoziatuz gero, alderdiek udalari komunikazio bide fede emaile baten bidez lehenbailehen jakinarazteko konpromisoa hartzen dute. Lur sailok eskuratzen dituen subjektu berria berriaz subrogatu beharko da hitzarmen honetatik eratortzen diren eskubide eta obligazio guztietan.

**ZORTZIGARRENA:** Lizartzako Udalarentzat xedaezinezkoak direnak izan ezik, hitzarmen honetako zehaztapenak alderdien akordioz aldatu, handitu edo garatu ahalko dira.

**BEDERATZIGARRENA:** Hitzarmena baliozkoa eta aplikagarria izateko, Lizartzako Udaleko Udaltzarak berretsi egin beharko du.

**HAMARGARRENA:** Udaltzarak berretsi ondoren, alderdiek agiria eskritura publiko bihurtu nahi badute, hitzarmen honetatik eratorritako gastuak, horien izaera edozein dela ere, eragindako partzelen jabeen kontura izango dira.

**HAMAIKAGARRENA:** Hitzarmen hau behar bezala izapidetuta erantsi beharko zaio berdintzanatze agiriari, hura jabetza erregistroan inskribatzerakoan.

**HAMABIGARRENA:** Hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, Lurzoruaren erregimenari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen (89. zenbakiko BOE) 4. artikuluan araututakoarekin bat etorritik, eta hura dela eta sortzen diren auziak Udaltzarak erabakiko ditu, hala badagokio, jurisdikzio bidean jar daitezkeen errekursoak jarri baino lehen.

Lizartzako Udalaren eta Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-1 Exekuzio Unitateko Jabeen arteko Hirigintza Hitzarmena, aipatutako unitatearen kudeaketa arautzeko, Alkateak aurrekizutako Hitzarmena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### **5.- UDALETXEAN IGOGAILUA. ADJUDIKAZIOA**

Bi mila eta hiruko urriaren hamaseian ospatutako bilkuran, Lizartzako Udaletxean Igogailua Jartzeko lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen:

1. Zenbakidun Kartazala.

ASCENSORES CENIA, S.A. - YURELAN Enpresek aurrekizutakoa, HIRUROGEITA ZORTZI MILA BERREHUN ETA BOST (68.205,00,-) eurotako aurrekontuarekin, BEZ barne delarik.

2. Zenbakidun Kartazala

ZARDOYA OTIS, S.A. Enpresak aurrekizutakoa, HIRUROGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI (63.260,00,-) eurotako aurrekontuarekin, BEZ barne delarik.

3. Zenbakidun Kartazala

ORONA Enpresak aurrekizutakoa, HIRUROGEITA HAMASEI MILA EHUN ETA HAMALAU (76.114,00,-) eurotako aurrekontuarekin, BEZ barne delarik.

Proposamen guztiak irakurri ondoren, eta kontratazio prozedurarekin ados, Mahaiak, kontratazio organuak zera proposatu du:



ZARDOYA OTIS, S.A. Enpresari, HIRUROGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI (63.260,00,-) Eurotan, (BEZ barne delarik) Lizartzako Udaletxean Igogailua Jartzeko lanak adjudikatzea, bera izan delako, preziorik egokiena proposatu duena.

Espedienteari batutzen zaizkio, aurkeztutako proposamen ekonomiko guztiak.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, aho batez ERABAKITZEN DA:

- 1.- Enkanteko eskaintza balioestea eta Lizartzako Udaletxean Igogailua Jartzeko lanen kontratua, ZARDOYA OTIS, S.A Enpresari HIRUROGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA HIRUROGEI (63.260,00,-) (BEZ barne delarik) eurotan adjudikatzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 623.431.01.02 partidaren kargura, 63.260,00,- Eurotako gastua onartzea.
- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

## **6.- IGOKA ESPEDIENTEA. HAUR ESKOLA**

Lizartzako Udalak, Txirrita Gudariaren Plaza, 1ean kokatuko den, 0 eta 3 URTE BITARTEKOENTZAT HAUR-ESKOLA egiteko baimena eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako

txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak, 0 eta 3 URTE BITARTEKOENTZAT HAUR-ESKOLA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DA:

1.- LIZARTZAKO UDALA baimentzea, herri honetako Txirrita Gudariaren Plaza, 1ean kokatuko den, 0 eta 3 URTE BITARTEKOENTZAT HAUR-ESKOLA egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik.

#### A) BALDINTZAK

1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.

2.- Akta hori lortu ahal izateko, Lizartzako Udala, Ikuskaritza bisita egitea eskatuko du.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

#### **7.- IGOKA ESPEDIENTEA. JOSE MARI OSTALA**

CONSUELO AGIRREBARRENA RUIZ DE LA CUESTA Andreak aurkeztu duen, Kale Nagusia, 22an kokatzen den JOSE M<sup>a</sup> OSTALAREN

Irekiera baimena eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, OSTALA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DA:

1.- CONSUELO AGIRREBARRENA RUIZ DE LA CUESTA Andrea baimentzea, herri honetako Kale Nagusia, 12an kokatzen den, JOSE M<sup>a</sup> OSTATUAREN akitibitatea egiteko.

## B) BALDINTZAK

1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.

2.- Akta hori lortu ahal izateko, Lizartzako Udala, Ikuskaritza bisita egitea eskatuko du.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

## **8.- APEZTEGIA ETXEAREN SALMENTA**

Apeztegia Etxearen Lehiaketa ospatu ondoren, eta, bera adjudikatzeko, 2003ko Irailaren 30ean, kontratazio mahaiak egin duen proposamena, hau da: ORKAIZTEGI S.L. ERAIKUNTZAK enpresari adjudikatzea, aztertu eta onartuaz, zera erabakitzea proposatzen da:

- 1.- Lehiaketa baliozkoa jotzea eta, ORKAIZTEGI S.L. ERAIKUNTZAK enpresari HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI Euro eta LAUROGEITA HAMAZAZPI (73.289,97) (Bez barne delarik) eurotan adjudikatzea.
- 2.- Apeztegia Etxearen lehiaketa eskritura publikoan jartzeko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, Joseba Egibar Artola Jaunari ahalmen guztiak ematea, behar diren agiriak luzatu eta sinatu ahal izateko.

Apeztegia Etxearen Lehiaketari buruz eginiko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **9.- LAGUNTZAZKO ARAUEN ERREBISIOA**

Bi mila eta hiruko abuztuaren hogeian, Udaleko Areto Nagusian, eguerdiko ordubatean, Mahaia, honela osatu zen: Lehendakaria: Joseba Egibar Artola eta Idazkari-Kontuhartzailea: Ana Jesus Zabala Garmendia, ekintzaren fede emailea.

Mahaia osaturik, proposamenak ireki ziren, jendaurrekoa aitortuaz, eta aurkeztutako proposamenak kontatu ziren, emaitza honekin:

- 1.- Zenbakidun Kartazala.

IÑAKI ETXEBERRIA IZAGIRRE, BERROGEITA HAMAZAZPI MILA ETA SEIEHUN (57.600,00) Euro-tako proposamena.

- 2.- Zenbakidun Kartazala

ARKITALDE, S.L., BERROGEITA ZAZPI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMASEI Euro BERROGEITA BI Zentimo (47.756,42) Euro-tako proposamena.

3.- Zenbakidun Kartazala

JOSE LUQUE VALDIVIA, BERROGEITA BOST MILA (45.000,00) Euro-tako proposamena.

4.- Zenbakidun Kartazala

ANA CRESPO AMADO, BERROGEITA HAMABI MILA (52.000,00) Euro-tako proposamena.

5.- Zenbakidun Kartazala

J.F. DE ASSAS YAGÜES, BERROGEITA BAT MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMA ZAZPI Euro LAUROGEITA HAMASEI Zentimo (41.737,96) Euro-tako proposamena.

6.- Zenbakidun Kartazala

PILAR AZURMENDI ETXEGARAI, HOGEITA HEMERETZI MILA (39.000,00) Euro-tako proposamena.

Proposamen guztiak ireki ondoren, eta denak, agiri guztiak zituztela ikusirik, Teknikariari pasa zitzaizkion, Baldintza Partikularren Pleguko 14. puntuko: Esleipena Egiteko Oinarrizko Irizpideak erabiliaz, aztertu eta bere txostena luzatu zezala eskatuaz.

Teknikariak luzatutako txostena aztertu ondoren, emaitza hauek eman zituen:

<b>Ordena</b>	<b>AURKEZLEA</b>	<b>PUNTUAK GUZTIRA</b>
1	PILAR AZURMENDI ETXEGARAI	86 Puntu
2	J.F. DE ASSAS YAGÜES	82 Puntu
3	JOSE LUQUE VALDIVIA	79 Puntu
4	ARKITALDE S.L.	75 Puntu
5	PEDRO ETXANIZ REBAQUE	73 Puntu
6	IÑAKI ETXEBERRIA IZAGIRRE	73 Puntu

Teknikariak luzatutako txostenaren arabera, eta kontratazio prozedurarekin ados, Mahaiak, Kontratazio organuari zera proposatu zion:

Bi mila eta hiruko irailaren hamarrean ospatutako bilkuran, Lizartzako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Idazketa Lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen, PILAR AZURMENDI ETXEGARAI Arkitektoaren alde, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituen, 86 puntu.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, ERABAKITZEN DA:

- 1.- Enkanteko eskaintza balioestea eta Lizartzako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Idazketa Lanen kontratua, PILAR AZURMENDI ETXEGARAI Arkitektoari, HOGEITA HEMERETZI MILA (39.000,00,-) (BEZ barne delarik) eurotan adjudikatzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 642.432.01.01 partidaren kargura, 39.000,00,- Eurotako gastua onartzea.
- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

**10.- A-3 – A-4 SEKTOREEN ARTEKO ZUBIA EGITEKO OBRAKO ZUZENDARITZAREN ADJUDIKAZIOA**

Lizartzako A-3 eta A-4 zonaldearen arteko, Zubiaren Proiektua egokitzeko, Asmatu Injineritzak aurkeztutako, obra zuzendaritzako eta segurtasun eta osasuneko azterketa burutzeko HAMABI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI euro HAMAHIRU zentimo (12.549,13,-) eurotako eskeintza, aztertu eta eztabaidu ondoren, aho batez onartua izan da.

**11.- LIZARTZAKO GIZARTE GUNeko JUBILATUEN TABERNA ETA JANGELA-ERABILERA ANITZEKO LOKALAREN ADJUDIKAZIORAKO BALDINTZA PLEGUN ONARPENA**

**LIZARTZAKO GIZARTE-GUNeko JUBILATUEN TABERNA ETA JANGELA-ERABILPEN ANITZEKO GELAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETAKO BALDINTZA ERREGULATZAILEEN PLEGUA**

**1. art.-** Kontzesioaren xedea.

Lizartzako Udala gizarte-gunearen instalazioen jabea da, eta lehiaketa publikoa irekitzen du kontzesio administratiboa emateko asmoz, bertako taberna eta jangela-erabilpen anitzeko gelaren erabilera eta ondorioz ustiapena baimentzeko kontzesionatzaileari.

**2. art.-** Kontzesionatzailearen betebeharrak.

Gizarte-gunearen eta jangela-erabilpen anitzeko gelako ustiapenaren zerbitzuak, ondorengo betebeharrak dakar:

- a) Jubilatuentzako taberna eta jangelaren zerbitzurako erabiliko diren instalazio eta lanabesen garbiketa.
- b) Gizarte-gunearen gainontzeko instalazioen eta mobiliarioaren garbiketak, zehazki, bainu jeriatrikoa, egon gela, komunak, biltegia eta aldagelak.

- c) Mahaira eta egon-gelara bere kabuz kontsumizioak eraman ezin dituzten jubilatuei laguntza eman.
  - d) Jangelaren uztea otorduko orduetatik kanpo iharduera anitzen erabilpenerako.
  - e) Gizarte-guneko bainu jeriatrikoko eta egon gelako giltzen ardura.
- 3. art.-** Behin behineko adjudikazioa egiten denetik urte bateko kontzesioko epea izango du, urtero luzatu ahal izango delarik bost urteko mugarekin, edozein alde hilabete aurretik ez badu denuntziatzen.
- 4. art.-** Esleidunak, lehen urteari dagokion ustiapenaren ondorioz, Lizartzako udalari EHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ETA HOGEI (157,20,-) eurotako hileroko kanona ordainduko dio, B.E.Z.a barne delarik. Diru kopuru hau urtero errebisatuko da, urteko K.P.I. aplikatuz.
- 5. art.-** Ordutegia: Azarotik Apirila bitarte: goizeko 10etatik gaueko 10k arte; Maiatzatik Urria bitarte, goizeko 10etatik gaueko 11k arte gutxienez, publikoari irekita egongo da, Eusko Jaurlaritzatik onartzen duen legediaren arabera ordutegi hau zabaldu daitekalarik. Asteguneko egun batean, hau da, asteartea, jai egitea izango da. Urrian, astearte arratsaldea eta asteazken goize, eguerdia bitarte, jai egitea izango da. Oporrak bi astetako aldian banatu ahal izango dira, bi aste, Abuztuan bete beharko direlarik.
- 6. art.-** Esleidunak berak zuzenean bete beharko ditu kontzesio honetan aipatzen diren lanak. Ez du inolako lan harremanik izango udalarekin, beste hainbeste dagokio kontrata lezakeen langileriarekin, honen Gizarte Segurantzako afiliazioa esleidunaren kontura izango bait da. Esleidunak alta eman beharko du Gizarte Segurantzako autonomoetako erregimen berezian, iharduera ekonomikoetako zergan, eta dagozkion beste zerga edo tasetan.



Zilegi izango da titularra ordezkatzeari baldin oporreetatik edo beste arrazoi batzuetatik, baina garaiz jakinarazi beharko zaio hori Udalari.

**7. art.-** Bi prezio tarifa aplikatuko dira, eta denbora guztian ikusgai azalduko dira.

a) Bata, Lizartzako 65 urtetik gorakoei aplikatuko zaie tarifa murriztua, eta honen prezioak Udala eta esleiidunaren artean adostuko dira kontzesioa eman ondoren.

b) Bestea, gainontzeko publikoari aplikatuko zaio, eta Lizartzako beste tabernetako antzekoak izango dira.

**8. art.-** Ondorengo gastuak esleiidunaren kontura izango dira:

- Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna, Jangela-Erabilpen Anitzeko Gelako zerbitzurako ontzien konponketa eta berriketa, aparailu elektrodomestikoko eta beste batzuen mantenimendu eta konponketa.
- Garbitasun, argindar, gasa, ura, zaborrak, estolderi eta sortu daitekeen beste edonolako gastuak.
- Bi urtetik behin, taberna eta jangela-Erabilpen Anitzeko gelaren pintaketa.

**9. art.-** Esleiiduna behartuta egongo da kontzesioak dirauen denboran, zerbitzu eta garbitasun egoki bat ematen instalazio guztietan, udalak honi dagokionez ezartzen dituen arauak betez. Baita ere, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun janariei buruzko xedapen eta arauak bete beharko ditu.

**10. art.-** Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko gelaren funtzionamendua, barruko ordena, zabaldu eta ixteko ordutegia, garbitasuna eta lokal eta zerbitzuen osasun baldintzei buruz udalak zaintze eta kontrol lanak

egin ahal izango ditu, eta esleidunari informazioa edo behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio, iharduerak sortzen dituen edozein motako beharrak betetzen diren edo ez akreditatzeko.

Nolabaiteko akatsik antzemango balitz behar den akta idatziko litzateke, eta lehen aldian idatziz oharterazioko litzaioke eta leudekeen kalteak ordaintzera behartuko litzateke, eta bigarren aldian kontratua hautsiko litzateke, esleidunak inolako eskubiderik gabe lokaletik alde egin beharko lukeelarik bertako tresnak utzirik, honek ez liokelarik salbuetsiko sortu dituen erantzunkizunei aurre egiteko.

Udalak erabakiko balu Taberna eta Jangela-Erabilpen Anitzeko gela behin behingoz edo behin betirako ixtea, esleidunak ez luke eskubiderik izango inongo motatako indemnizazio edo konpentsaziorik jasotzeko.

Lokala utziko ez balu, sortu daitezkeen erantzunkizun penaletik aparte, udalak edozein organo erabiliz, zigor edo premiamendu neurriak erabili ahal izango ditu, agindutakoa bete dadin.

- 11. art.-** Esleidunak ezingo du hirugarren bati lagapena utzi udalaren baimenik gabe.
- 12. art.-** Esleidunak ezingo ditu obrak egin Udalaren baimenik gabe.
- 13. art.-** Esleiduna erantzule izango da pertsona edo gauzei sortu daitezkeen edozein kalteengatik nahiz eta iharduera udalaren jabego edo menpean egon.
- 14. art.-** Udala behartuta dago lokala, bere instalazio eta haltzariak aseguratuzera egokiak diren kopuruetan.
- 15. art.-** Udalak kontratua salatu eta indarrrik gabe utzi lezake, plegu honetan zehazten diren baldintzetatik edozein bete gabe utziko balitz.

Era berean, eska liezaioke esleidunari kontratazio honek sortarazten dituen ekonomi arloko obligazioen ordainketak eguneratuak izatea, ordaintzeke dauden zorrak dagozkien gainkargu eta guzti, premiamendu bidetik kobratu ahal izango direlarik.

**16. art.-** Lagapenerako zehaztu den denbora bukatutakoan amaituko da kontratua ere, eta esleiduna behartuta geratuko da alde egiteko erabili dituen lokalak eta hauei atxekitutako ondasunak utsik eta aske uztera, udala ahalmenduta egongo delarik usketa erabaki eta egiteko.

Kontratoaren luzapenik balego, hau ere bukatu ahal izango da esleidunak errenunziazten duelako, udalari idatzi bat zuzenduz hiru hilabeteko aurrerapenarekin.

**17. art.-** Udalak argituko ditu baldintza plegu hauek aplikatzerakoan sortu daitezkeen zalantza guztiak eta plegu honetan aurrikusten ez diren edozein zalantzari dagokionean, udaletako kontratazio eta ondasunen erreglamenduak dituzten ebazpenen bitartez eta indarrean dauden beste xedapen batzuren bitartez arautuko da kontzesioa.

**18. art.-** Plegu honetan aurrikusten den lehiaketaren bitartez gauzatuko da adierazi den zerbitzu horren eleispena, eta horretan aurrikusi gabe dagoen oroako udaletako kontratazio erreglamendurako 40. artikulua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenek aginduko dute.

**19. art.-** Baldintza plegua eta beste aurrekinak udal bulegoetan aztertu ahal izango dira.

**20. art.-** Lizitazioak puntu hauek hartuko ditu kontutan:

- a) Lizartzan erroldaturik egotea baloratu egingo da, herrikoari lehentasuna emanez.
- b) Euskaraz jakitea.

- c) Langabezian egotea baloratuko da.
- d) Famili kargak kontutan izango dira.
- e) Esperientzia profesionala antzeko lanpostuan izatea baloratuko da.

**21. art.-** Behin behineko garantiarik ez dute aurkezteko esleidunek.

**22. art.-** Behin betiko berma ehun mila (601,01,-) eurokoa izango da. Berma hori udaleko kontratazio erreglamenduak aurrikusten duen bezala eratu beharko du esleidunak, lagapenaren oharterazpena egin eta hurrengo hamar egunetako epean udaleko kontuhartzaitzara eraman beharko duelarik berma eratu duela egiaztatzeko agiria. Berma horren bitartez erantzun beharko dio kontratu honetako obligazioak betetzeari.

Udaleko kontratazioa erreglamenduko arauen eta horiek alda zitzaketen ondorengo xedapenen arabera itzuliko da behin betiko berma hori.

**23. art.-** Proposamenak jarrain azaltzen den eredia bete beharko dute:

.....jaun/anderea, .....bizi dena, N.A. zenbakia ....., ahalmen juridiko eta ihardutekoaren jabe delarik, eta jakin duenez Lizartzako Udalak deialdia egin duela Gizartegunearen taberna eta jatetxeko zerbitzua erabili eta ustiatzeko lagapen administratiboari dagokion esleipena ematearren, horretarako onartu den baldintza plegua ere ezaguturik, aipatu lehiaketan parte hartu nahi du, eta erabilpen eta ustiaketa hori aipatutako baldintzen arabera egitera behartzen du bere burua, hortik eta zuzenean edo subsidiarioki aplikatu daitezkeen indarrean dauden arautetaik sortzen diren betebeharrak eta erantzunkizun guztiak onarturik.

Lekua, data eta sinadura.

**24. art.-** Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, 20 lanegunen epean aurkeztuko dituzte bere proposamenak, eta hauek Udalak aztertuko ditu. Onartutako baremoak aplikatu ondoren, kontratazio proposamena egingo du bere kasuan, eta hau Udal Plenoak onetsiko du.

Lizartzako Gizarte-Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilpen anitzeko gelaren kontzesio Administratiboaren Lehiaketako Baldintza Erregulatzailen Plegua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **12.- ESKOLA ETA FRONTOIA GARBITZEKO, ENPRESAREN KONTRATAZIOA**

Lizartzako Udal Eraikuntzak garbitzeko zerbitzua, Udaleko funtzionarioak betetzen du. Bainan gaur egun dauden behar guztiak betetzeko iristen ez denez, eta pertsona horrekin adostu ondoren, hainbat aldaketa proposatzen dira:

Garbitzaileak, hau da: Mertxe Luloaga Altuna funtzionarioak, egunean lau ordu beteko ditu, ordu hoiak, honela banatuko direlarik:

Sendagilearen Kontsulta, 1,50 ordu

Udaletxean: 2,50 ordu.

Horren arabera, Eskola eta Frontoia garbitzeko zerbitzua kontratatu ahal izateko, hainbat enpresekin harremanetan jarri gera, eta bi izan dira, beren proposamenak aurkeztu dituztenak:

LIMPIEZAS ELURRA S.L., urteko, HAMALAU MILA LAUROGEITA BOST euro HAMAHIRU zentimo (14.085,13) eurotako proposamenarekin.

FAISO S.L., urteko HEMERETZI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA SEI euro LAUROGEITA BOST zentimo (19.846,85) eurotako proposamenarekin.

Bi proposamenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, LIMPIEZAS ELURRA S.L. enpresari, Eskola eta Frontoia garbitzeko zerbitzua, HAMALAU MILA LAUROGEITA BOST euro HAMAHIRU zentimo (14.085,13) eurotan, adjudikatzea proposatu da.

Limpiezas Elurra S.L. enpresaren alde eginiko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

### **13.- 2003ko URTEKO AURREKONTUAREN 2. KREDITU ALDAKETA**

Lizartzako Udal honen 2003ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 28.242,64 eurotako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

#### **14.- 2004 URTERAKO AURREKONTU OROKORRA**

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzeko dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaitan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2004 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

#### **SARREREN EGOERA**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Euroak</b>
1	Zuzeneko Zergak	82.563,38
2	Zeharkako Zergak	121.500,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	109.002,02
4	Transferentzi Arruntak	343.962,58
5	Ondare Sarrerak	2.972,02
9	Pasibo Finantziarioak	90.000,00
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>750.000,00</b>

#### **GASTUEN EGOERA**

<b>Kapitulua</b>	<b>Izena</b>	<b>Euroak</b>
1	Pertsonal Gastuak	176.605,30
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuet	147.478,66
3	Finantza Gastuak	5.447,33
4	Transferentzi Arruntak	77.054,82
6	Inbertsioak	320.127,25
9	Pasibo Finantziarioak	23.286,64
<b>IRTEERAK GUZTIRA</b>		<b>750.000,00</b>

2004 urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

### **15.- 2004 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANGILEEN ZERRENDA**

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikuluko koerlatiboak erabakitzen dute, Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrendak onartzea, funtzionari, pertsonal laborala finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dutelarik.

#### **2004 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA**

#### **KARRERAKO FUNTZIONARIANTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

<b>IZENA</b>	<b>Lanp. Kop.</b>	<b>T.6/89 L. 43. Art.</b>	<b>Egoera</b>	<b>Ohar.</b>
<b>IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK</b> <b>Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila</b> <b>IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA</b>	1	B	J	70%



<b>ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA</b> <b>Laguntzaileen Azpimaila</b> ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
<b>ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA</b> <b>Azpimaila Teknikoa</b> <b>* Mota: Erdiko Teknikariak</b> GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	B	J	36%
<b>Administratiboa</b> <b>* Mota: Laguntzailea</b> LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	40%
<b>Zerbitzu Bereziak</b> <b>*Mota: Ofizioetako Pertsonala</b> ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	D	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	
<b>LAN PERTSONALI GORDETZAKO LANPOSTUAK</b>	Lap.Kop.	Lanbide Maila	Taldea	Egoera
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	1	6	E	BB

## 2004rako LANPOSTUEN ZERRENDA

### KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S. P	Dedik azioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	Administ Orokorra	F.H.N .	P Zientziak edo Zuzen. Diplom.	C	%70 Berez .	B	23	10.031,00	4	91-02-06	Aktib.	Agrup .
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%100 Berez .	D	14	10.947,16	3	91-02-06	Aktib.	Funtz.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	TEKN .	Diplomaduna	C	%36 Berez .	B	17	3.828,16	3	91-12-01	Aktib.	Funtz.
OFIZIALA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%100 Berez .	D	16	12.544,98	2	91-02-06	Aktib.	Funtz.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%40 Berez .	D	13	4.204,48	3	96-04-01	Aktib.	Funtz.
GARBITZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%100 Berez .	E	8	6.802,88	2	92-05-01	Aktib.	Funtz.

BEHIN-BEHINEKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO  
LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%26,67 Berez.	E	6	Ez	2	91-02-06	Aktib.	BB

Izena	Soldata	Lan Lekuagatiko Osakina	Osakin Espezifikoa	Hirurtekoak	Besteak	Guztira
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	587,05	389,17	716,50	148,81	58,37 Agrupazioa	1.899,90
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	531,83	311,47	781,94	79,18		1.704,42
GIZARTE LAGUNTZAILEA	317,11	144,27	273,44	24,25	37,64%	759,07
LANETAKO OFIZIALA	531,82	359,37	896,07	63,24		1.850,50
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	220,01	118,93	300,32	6,54	41,37%	645,80
GARBITZAILEA	385,05	149,33	485,92	18,84	79,31%	1.081,88

**16.- IÑAKI APAOLAZA MUJIKA, ANDONI ETXEBESTE IRAOLA eta ZORIONE ETXEZARRAGA ORTUONDO ZINEGOTZIEN DIMISIOA eta JOSEBA LEIZAOLA AZPIAZU eta LUIS BANDRES UNANUEren UKO EGITEA**

Arazo propioak direla medio, IÑAKI APAOLAZA MUJIKA, ANDONI ETXEBESTE IRAOLA eta ZORIONE ETXEZARRAGA ORTUONDO Zinegotziek, beren kargutako dimisioa aurkeztu dute.

Aldi berean, EAJ-PNV/EA Udal Hauteskundeetarako ordezkoen zerrendan agertzen den, JOSEBA LEIZAOLA AZPIAZU eta LUIS BANDRES UNANUE Jaunak, uko egiten dio zinegotziaren kargua hartzeari.

IÑAKI APAOLAZA MUJIKA, ANDONI ETXEBESTE IRAETA eta ZORIONE ETXEZARRAGA ORTUONDO Zinegotzien dimisioa, eta JOSEBA LEIZAOLA AZPIAZU eta LUIS BANDRES UNANUE Jaunen uko egitea, aho batez onartu dira. Era berean erabaki da,Hauteskunde Junta Zentralera jakinerazpena bidaltea, bere jakin eta efektuetarako.

## **17.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

### **OBRATAKO BAIMENAK**

ESTANIS AGIRRE ZABALA - Zkia: 185/2003  
FRANCISCO ARDIBIDE TELLERIA – Zkia: 245/2003  
CONSUELO AGIRREBARRENA RUIZ DE LA CUESTA – Zkia:246/2003  
REYES, XABIER URBIZU URDAMPILLETA – Zkia: 230/2003  
SEASKA ETXEBIZITZAK S.L. – Zkia: 280/2003  
SEASKA ETXEBIZITZAK S.L. – Zkia: 281/2003  
IÑAKI LASA MIRANDA – Zkia: 255/2003  
ARANTXA GARMENDIA MAYOZ – Zkia: 270/2003  
TERESA UNSAIN ELIZAGI – Zkia: 311/2003  
FRANCISCO ETXEBERRIA BERAKOETXEA – Zkia: 298/2003  
MERTXE SOROA IBARLUZEA – 325/2003  
JOKIN LIZEAGA – Zkia: 322/2003  
INAXIO ALTUNA AZURMENDI – Zkia: 318/2003  
PLAZA AURRE ETXEKO JABEKIDEAK – Zkia: 395/2003  
JOSE MANUEL AGIRREBARRENA RUIZ DE LA CUESTA – Zkia: 442/2003  
XABIER-REYES URBIZU URDANPILLETA – Urbaniezinak diren lurretan famili bikoitzeko etxea egiteko baimena eskaria – Bidea egin eta 0 azpiko kotararte.  
JOSE M<sup>a</sup> ZEBERIO – JOSE ANTONIO MINTEGI – Zkia: 354/2003 – Lizentzia “Prekario”n ematen da.  
AGUA DE INSALUS S.A. – PABILOIAREN ERAISKETA

BEÑAT AZURMENDI SORONDO – Zkia: 564/2003  
JUAN JOSE GOGORZA – Zkia: 571/2003  
LIZARTZAKO PARROKIA – zkia: 604/2003  
PEDRO URKIZAR LARRARTE – Zkia: 657/2003  
XABIER-REYES URBIZU URDANPILLETA – Hormak burutzea  
HERMENEGILDO IRAZU – Etxeko Leihoak aldatu eta berogailu hornikuntza  
egin.  
JOSE MANUEL AGIRREBARRENA RUIZ DE LA CUESTA – Agerre  
Baserriaren Estalkia eta Fatxadak Eraberritu  
M<sup>a</sup> CRUZ OLAETXEA KARRERA – Zkia: 732/2003  
JOKIN LIZEAGA – Zkia: 706/2003

#### GIZA LARRIETARAKO LAGUNTZAK

SATURNINA ZEBERIO IBARLUZEA – Zkia: 54.206-1-2-3  
ELENA DEL CASTILLO CAMARA – Zkia: 54.030.02/3  
JOSE ANTONIO LEKUONA AZPIROZ – Zkia: 54.074-1

#### AGUA DE INSALUS

Udal-Arkitarktoak, AGUA DE INSALUS S.A. eraikuntzaren segurtasun baldintzei buruz egindako txostenaren berri eman ondoren.

Eraikuntzaren egoera arriskugarriagatik higiezina aurri arriskuan dagoela Udal-Teknikariak ikusi ondoren, pertsona eta ondasunei kalte egin diezaikeela eta, URGENTZIZ botatzea proposatu du.

Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuaren 247. artikuluan eta Hirigintza-Arauaren Erregelamenduaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, segurtasun arrazoiengatik, higiezinaren bizigarritasun eta erabilpenari buruz beharrezkoa erabaki ondoren, Lurzoru-Erregimen eta Hiri-Antolamenduari buruzko Legearen 247. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) kasuaren barruan dagoelako,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

AGUA DE INSALUS S.A.rena den eraikina, hurre-hurreko aurri egoeran aitortzea, eraikina berehala utz dezatela aginduz, erortzeko arriskuan dagoelako, Lurzoru-Erregimen eta Hiri-Antolamenduari buruzko Legearen 247. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) kasuan tipifikatua dagoelako.

Bi eguneko epea ematea, AGUA DE INSALUS S.A.ren higiezina bota dezan, epe horretan berak bota ezean, Udalak haien kontura botako duela ohartaraziz.

Eraisketa egiteko, baldintza hauek beteko dira:

- 1.- Altzairuzko egitura zuten pabeiloiak eraitsi beharko dira eta lanak behar bezala burutu ahal izateko hormigoizko eraikina ere bota beharko da.
- 2.- Eraisketa egiteko ez da proiekturik eskatuko, izan ere egin beharrezko lanak URGENTZIZKOAK bait dira, egiturak duen egoera oso arriskutsua bait da.
- 3.- Lanak burutzeko, pabeiloiaren inguruan metatuta dauden materialak baztertuko dira eta zubia pasa eta berehala dagoen eraikinetik hasiko da eraisketa.
- 4.- Lanak beti estalkia eraitsiz burutuko dira, lan arriskuak ahalik eta gehien saihesteko.
- 5.- Eraisketa era mekanikoan burutuko da eta beharrezkoak diren babes neurri guztiak hartuko dira.
- 6.- Pabeiloi berria eraikitzeko, egun zuen bolumen kontsolidatua kontutan hartuaz egingo da. Alineazio edo rasante aldaketarik egin behar balitz Xehetasunezko azterlan bat egitea nahikoa izango da.
- 7.- Pabeiloiaren Proiektua aurkeztu beharko da Udalean bere onarpenerako. Ez da beharrezkoa izango bi isuritako teilatua izatea.

## LUIS GARZIARENA ZABALETA – BORDA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena EMATEA baldintza hauekin:

Obrak burutuko diren eraikina BORDA dela eta, ezingo du beraz, bizitegiko erabilerarik izan. Baimendutako obrak soilik burutu ahal izango dira.

Obrak burutuko diren eraikina BORDA dela eta, ezingo du beraz, bizitegiko erabilerarik izan. Baimendutako obrak soilik burutu ahal izango dira, hau da: Leihoak jarri, atzeko horma konpondu eta Ura eta Argindarra jarri.

Andamioak N-130 Errepidean jarri behar balira, behar bezala babestu eta seinalizatu beharko dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepidetako Sailaren baimena eskuratu beharko da.

## LURREN SEGREGAZIOA

ARATZ MUJIKA BARANDIARAN Jaunak, NAN 44139590-Z zenbakiduna, Tolosako Amaro Auzoa, 12 –1.a B helbideratuak, 2003ko Azaroaren 5ean eskaria aurkeztu du; horren bidez, aiaptu eskatzaileak, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, bereizkea egin eta BARATZA BASERRIA eraikuntzarekin batera, finka bakar eta bateratu bat osatu ahal izateko.

- 1.- Ocho áreas y noventa centiáreas de sembradío de la huerta y antepuertas, que confina por Norte con camino peatón y por lo demás lados con camino carretil y por último en el centro de este trozo se halla la casa, hoy convertida en solar.

2.- Ochenta y una áreas de sembradío y cuarenta y cinco áreas de herbal, peñascal y jaral, que contiene la heredad nombrada Etxeburua, confinante por Norte con terrenos de las caserías Errementarine y Barrenetxea; por Oriente con camino carretil y terrenos de Zelaingoa; por Mediodía, con los de Zuloaga y de Goyenechea y por Poniente con los de Mirandenea y camino carretil”.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. Artikulua gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

### CONSUELO AGIRREBARRENA RUIZ DE LA CUESTA – OSTALA IREKITZEKO BAIMENA

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau **ERABAKI DUT**:

Espediente honetako eskatzaileari irekitzeko baimena EMATEA, baldintza hauekin:

1.- Beharrezkoa izango da, egitasmoan jasotako babes neurriak aplikatzea eta horretarako urte amaiera aurretik berriro ere ikustaldi bisitaldia egingo da, hauen betekizuna egiaztatzeko.



Era berean, gogorazten dizut erabakia zure kontrakoa edo aldekoa izan, erabakiaren aurka jotzeko eskubidea daukazula. Erabaki horren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen berriro aztertzeko errekurtsoa ipini ahal duzu; beti ere, 30/1992 Legearen<sup>1</sup> 116. artikulua eta hurrengo araberako. Horretarako, hilabete (1) izango duzu, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean ipini ahal duzu, aurretik berraztertzeko errekurtsorik ipini gabe. Horretarako bi hilabete (2) izango dituzu, dekretu honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

### PEDRO MENDIZABAL – ILLARRAZU BORDAREN LEGEZTAPENA

Pedro Mendizabal Jaunak eskatuta, Illarrazu Bordaren legeztapenerako hasitako espedientea ikusirik.

Ekainaren 16ko 1/1992 Errege-Dekretu Legegilearen bidez onartutako Lurzoruaren eta Hiri-Antolamenduaren Erregimenari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 249-1 artikuluko a) hizkian ezarritakoa ikusirik,

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

1.- Pedro Mendizabal Jaunari, Illarrazu Borda legezatzeko baimena “en precario” ematea, ezinbestean, baldintza hau bete behar delarik:

Sei hilabeteren epean ur zikinak jasotzeko hobi septiko txikia jarri beharko da.

Baimen hau, hirugarren baten jabetza eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Era berean, gogorazten dizut erabakia zure kontrakoa edo aldekoa izan, erabakiaren aurka jotzeko eskubidea daukazula. Erabaki horren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen berriro aztertzeko errekurtsoa ipini ahal duzu; beti ere, 30/1992 Legearen<sup>1</sup> 116. artikulua eta hurrengo arabera. Horretarako, hilabete (1) izango duzu, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean ipini ahal duzu, aurretik berraztertzeko errekurtsorik ipini gabe. Horretarako bi hilabete (2) izango dituzu, dekretu honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

## **18.- BESTELAKOAK**

Lizartzan, 2003ko Azaroaren 26an.

### **BILDUTAKOAK**

Alde batetik, JOSEBA EGIBAR ARTOLA, N.A.N. 15.939.549 C zenbakiduna, Lizartzako Udaleko Alkatea-Lehendakaria.

Bestetik, MARIANO URBIZU ZABALA Jauna, N.A.N. 15.869.031 C zenbakiduna.

### **AGERTZEN DIRA**

Lehenengoa.- Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakari gisa, eta herri erakundearen ordezkari gisa iharduten du.

Bigarrena.- Bere izen eta ordezkartzan.

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Azaldutakoek, elkar onesten dute, hitzarmen egiteko lege-ahalmen beharrezkoa eta nahikoa dutela, eta horretarako

### **ADIERAZTEN DUTE:**

Lehenengoa.- Lizartzako Arau Subsidiarioetako AZTINBURU-n kokatuta dagoen higiezinaren eraikitze lanak egiten ari da Urbizu Jauna.

Higiezina behar dituen zerbitzuez hornitu ahal izateko –hala nola, energia elektrikoa edo telekomunikazio sarea- Urbizu jaunak Udalarenak diren lurretatik igaro behar ditu egin beharrezko instalazioak jasoko dituzten kanalizazioak.

Bigarrena.- Bi alderdiek kontratu hau sinatzen dutela instalazio baldintzak eta jabari publikoaren erabilera arautzeko.

### **XEDAPENAK:**

Lehenengoa: **Legezko Gaitasuna**

Bi alderdiek hitzarmen hau egin eta sinatzeko beharrezkoa den legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta hura Fede Onez betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Bigarrena: **Hitzarmenaren Xedea**

Hitzarmen honen xedea udal lurren erabilpen baldintzak arautzea da, Urbizu jauna egiten ari den eraikuntza zerbitzu egokiez hornitzeko beharrezkoak diren kanalizazioak egiterakoan.

Hirugarrena: **Udalaren Konpromisoak**

LIZARTZAko Udalak, Alkatearen bidez, konpromiso hauek hartzen ditu:

- .- Egiten ari den eraikuntza zerbitzuez hornitzeko (argia, telekomunikazioak eta abar) beharrezkoak diren kanalizazioak ezarri eta hor irauteko baimena ematea.

#### Laugarrena: **Urbizu Jaunaren Konpromisoak**

Urbizu Jaunak, bestalde, konpromiso hauek hartzen ditu:

- .- Lanak egiten direneko lurak egoera onean uztea. Horretarako Udaleko teknikariek gainbegiratu beharko dute ingurua.
- .- Obren udal lizentzia eskatzea, lan horiek egiteko.

#### Bosgarrena: **Izaera Juridikoa**

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du Lurzoruaren Erregimenari eta Balioespenei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen (89. zenbakia duen BOE) 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta haren inguruan sor daitezkeen auziak Udalbatzak erabakiko ditu, hala badakio, jar daitezkeen errekurtsoen aurreko urrats gisa.

Eta jasota gera dadin, eta dagozkion eraginak izan ditzan kontratu hau egiten eta sinatzen dute bertaratuek, bi aletan, goian adierazitako lekuan eta egunean.

Lizartzan, 2003ko Azaroaren 26an.

### **BILDUTAKOAK**

Alde batetik, JOSEBA EGIBAR ARTOLA, N.A.N. 15.939.549 C zenbakiduna, Lizartzako Udaleko Alkatea.

Bestetik, MARIANO URBIZU ZABALA Jauna, N.A.N. 15.869.031 C zenbakiduna.

### **AGERTZEN DIRA**

Lehenengoa.- Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakari gisa, eta herri erakundearen ordezkari gisa iharduten du.

Bigarrena.- Bere izen eta ordezkartzan.

Azaldutakoek, elkar onesten dute, hitzarmen egiteko lege-ahalmen beharrezkoa eta nahikoa dutela, eta horretarako

### **ADIERAZTEN DUTE:**

Lehenengoa.- Lizartzako Arau Subsidiarioetako, AZTINBURU-n kokatuta dagoen higiezinaren eraikitze lanak egiten ari da Urbizu Jauna.

Bere etxera sartzeko bide egokia egiteko, Urbizu Jaunak udalarena den lur zati bat behar du; honekin batera doan planoan zehazten dena, hain zuzen.

Bigarren.- Lizartzako Udalak, sektorea etorkizunean garatzeko aukera aintzat hartuta, Urbizu Jauna egiten ari den sarbideari jarraipena emateko interesa duela, honekin batera doan planoan adierazten den moduan.

## **XEDAPENAK:**

### **Lehenengoa: Legezko Gaitasuna**

Bi alderdiek hitzarmen hau egin eta sinatzeko beharrezkoa den legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta hura Fede Onez betetzeko konpromisoa hartzen dute.

### **Bigarrena: Hitzarmenaren Xedea**

Hitzarmen honen xedea Lizartzako Udalak Urbizu Jaunari izaera publikoko lur zati bat bere etxerako sarbide gisa erabiltzeko lagatzea da, bere etxera sartzeko bidea egiteko lanak egitearen eta, sektorea garatzen denean, bideari jarraipena emateko aukeraren truke; bai eta, gerora, Urbizu Jaunak berea den lur zatiaren erabilera Lizartzako Udalari lagatzearen truke ere.

### **Hirugarrena: Udalaren Konpromisoak**

LIZARTZAKo Udalak, alkatearen bidez, konpromiso hauek hartzen ditu:

- .- Udalarena den 110 m<sup>2</sup>-ko lur zatia Urbizu Jaunari lagatzea, bere etxera sartzeko bideari dagozkion lanak egiteko erabili dezan.
- .- Urbizu jaunak egindako sarbidea eskuratzea honekin batera doan planoan zehazten diren 110 m<sup>2</sup>-etan, udal jabari publikoan sartzeko.
- .- Hitzarmen honetatik ondorizotutzen diren jabetza publikoko 220 m<sup>2</sup>-ko lur azalera kontserbatzeko eta mantentzeko lanak bere gain hartzea; horietatik, 110 m<sup>2</sup> Lizartzako Udalarenak dira jada, eta beste 110 m<sup>2</sup>-ak agiri honen bidez eskualdatzen dira.

### **Laugarrena: Urbizu Jaunaren Konpromisoak**

Urbizu Jaunak, bestalde, konpromiso hauek hartzen ditu:

- .- Bere etxera sartzeko bidea egiteko beharrezkoak diren lanak egitea, hari jarraipena emateko aukera aintzat hartuz, etorkizunean ingurua garatu ahal izateko, honekin batera doan planoan zehazten denarekin bat etorriz.
- .- Sarbiderako lanak egin ondoren, 110 m<sup>2</sup>-ko lur azaleraren erabilera Lizartzako Udalari lagatzea, onura publikokoak izan daitezen.

#### **Bosgarrena: Eskritura Publikoa**

Parte hartzen duten alderdiek eskritura publikoan formalizatu dezakete hitzarmena.

Hitzarmen hau formalizatzeari dagozkion notaritzako eta erregistroko ordainsarien gastuak eskatzailearen kontura izango dira. Alabaina, hitzartutakoa alderdiek sinatzen dutenetik aurrera jarriko da indarrean.

#### **Seigarrena: Izaera Juridikoa**

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du Lurzoruaren Erregimenari eta Balioespenei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen (89. zenbakia duen BOE) 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta haren inguruan sor daitezkeen auziak Udalbatzak erabakiko ditu, hala badakio, jar daitezkeen errekurtsoen aurreko urrats gisa.

Eta jasota gera dadin, eta dagozkion eraginak izan ditzan kontratu hau egiten eta sinatzen dute bertaratuek, bi aletan, goian adierazitako lekuan eta egunean.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatziak laurdenagutxiago direnean.